

## Bibliobusen buruz topaketak

Martín SARAGÜETA \*

**P**asa den apirilaren 21ean, Madrilén, Estatuko Kultur Idazkaritzan, "Bibliobusak Espainian" izenburuko ihardunaldia izan zen. Bertan estatuko bibliobus zerbitzuen egoera azaldu zen. Hala nola, Andaluzia, Gaztela, Katalunia, Valentzia eta baita Nafarroako arduradunek ere, izandako esperientzia eta iritziak jakinarazi zizkioten elkarri. Lan honek bat egiten du Kultur Ministeritzatik proposatzen den lan-taldearen betebeharrekin: elkarren berria izan eta koordina-zioa hainbat gai jorratzean.

Arratsaldeko saioan, liburutegi zabalkuntzaren inguruan hiru esperientzi diferente jakitera eman ziren: Zamorako probintzian dagoen eskoletarako bibliobusa, Txilen gauzatu diren hainbat proiektu eta Aurizberriko Herriliburutegian beteberria den BERRAGU zerbitzua (vide TK 4 67. orr.).

Arestian aipatu den bezela, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko ordezkariak, duela bortz-pasei urte hastear zegoen bibliobus zerbitzuaren galera adierazteaz gain, bibliobus honek bete behar zituen hutsuneek berdin-berdin segitzen dutela azaldu zuen. Aurrikusten diren aukerak zerbitzu hau berriro ere martxan paratze-ko onak ez badira ere, ahalegin guziak egi-nen direla argitu zuen.

Aurizberriko Herriliburutegiko BERRAGU zerbitzuari dagokionez, proiektuaren berri emate-az gain, jasotako lehenbiziko emaitzak kaleratu ziren: etxez etxeko zerbitzu honek egindako maileguen porzentaia, mailegu orokorrarekin konparatuta, hazi egin da lehenengo hiru hilee-tan honako kopuru hauetan: urtarrilan %3a, otsailan %9a, eta martxoan %14a.

## Encuentro sobre bibliobuses

Martín SARAGÜETA \*

**A**udieron representantes de las comunida-des de Andalucía, Madrid, Castilla-León, Castilla-La Mancha, Cataluña, Valencia y Navarra. Durante todo el día se dio a conocer la situación de los diferentes servicios de biblio-bús en cada una de las comunidades con el fin de estimular la cooperación y posible coordina-ción por el grupo de trabajo animado por el Ministerio de Cultura.

La representación de la Red de Bibliotecas Públicas de Navarra dio noticia de la experien-cia fallida de instalación de un bibliobús, y la conveniencia de su implantación para atender determinadas zonas. Por otra parte, la Biblioteca de Espinal dio a conocer el servicio BERRAGU de reparto domici-liario, exponiendo los resultados de los tres primeros meses de actividad, siempre sobre el total de préstamos efectuados por la biblioteca: en enero el porcentaje de los atendidos por este servicio fue el 3%, el 9% en febrero y el 14% en marzo.

97

\* Aurizberriko Herri Liburutegia

\* Biblioteca Pública de Espinal